

LEGE BILTZARREKO ALDIZKARIA
REVISTA DEL PARLAMENTO VASCO



EGILEENTZAKO GIDALERROAK



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

legal@legebiltzarra.eus

Aldizkariari buruz

Ikuspegia eta irismena

Legebiltzarreko Aldizkaria – LEGAL – Revista del Parlamento Vasco ganbera legegileen interesekoak diren Zuzenbidearen arloetan espezializatutako aldizkaria da. Batez ere Zuzenbide parlamentarioan oinarrituko da, baina Zuzenbide konstituzionala, administratiboa eta, oro har, Zuzenbide publikoa ere landuko ditu, baita bizitza parlamentarioan, nola edo hala, eragina duen beste edozein gai ere.

Urtean behin formatu elektronikoa egingo den argitalpena da, sarbide librekoa, eleaniztuna eta doakoa, bere autoreen artean espezialista onenak dituen, eta etengabe bilakatzeko prest dagoena, edukien kalitate bikaina eskaintzeko beti eta gure irakurle potentzialen beharizanetara egokitzeko asmoz.

Batez ere Zuzenbideko profesionalei zuzendutako aldizkaria da, jarduera parlamentarioarekin lotura berezia duten arlo juridiko guztietan ikerketa-jarduera sustatzea eta zabaltzea helburu duena. Helburu horien barruan, LEGAL aldizkariak erreferentzia izan nahi du alor horietako autoreentzat eta ikertzaileentzat. Hori dela eta, irakurleek aldizkarian aurkituko dituzte, adierazitako gaien buruzko jatorrizko azterlanen gain, jatorri parlamentarioko dokumentuak, ikuspuntu doktrinal, politiko edo soziologikotik garrantzitsuak direnak, gure ganberetan dagoen ondare intelektuala gizarteari helarazteko baliatu nahi ditugunak.

LEGAL aldizkaria ez da nahitaez identifikatzen argitalpen honetako artikuluen egileek adierazitako edukiak eta iritziek.

Sarbide-politika

LEGAL aldizkariak bere edukirako **sarbide librea, doakoa eta berehalakoa** eskaintzen du. Sarbide irekiko urtean behingo argitalpena da (Open Access), eta eduki guztia libreki eskura daiteke, kargurik gabe.

Aldizkaria doakoa da alde guztientzat: egile, ikuskatzaile eta irakurleentzat. Ez du tasarik kobratzen lanak bidaltzeagatik, ezta kuotarik ere artikulua argitaratzeagatik; horrez gain, ez da alde aurreko erregistrorik behar edukiak eskuratzeko.

Ez du tasarik kobratzen lanak bidaltzeagatik, ezta kuotarik ere bere artikulua argitaratzeagatik.

Argitalpenaren maiztasuna

2023tik aurrera, LEGAL aldizkariak **etengabeko argitalpen** sistemarekin dihardu, hau da, testuak etengabe jasotzeko irekita dago. Artikuluak argitaratuko dira berrikusteko eta

onartzeko prozesua amaitu ahala. Ondoren, artikulua guztiak urtero argitaratzen den zenbaki osoari gehituko zaizkio.

Ebaluazio-prozesuei buruzko informazioa

Legebiltzarreko Aldizkaria – LEGAL – Revista del Parlamento Vasco aldizkariak bere gain hartzen du erantzukizuna, ikerketa-jarduerako printzipio etikoak eta erantzukizunak, hala nola **zintotasuna**, **objektibotasuna**, **inpartzialtasuna** eta **konfiantza**, bere jarduera zientifiko eta editorialean nagusi izan daitezten.

Hala, **talde editorialak** bermatzen du edizio-prozesuan zehar egindako interakzio guztien erregistro zehatza egingo duela, eta erabaki editorialak, bidalitako argitalpenak onartzekoak zein baztertzekoak, arrazoituko dituela.

Azterlanen ataleko artikulua zientifikoak itsu bikoitzaren berrikuspen-sistemaren bidez egiten da. Berrikuspenak erakunde argitaratzailetik kanpoko pertsonak egingo dituzte, tartean Aholku Batzordeko kideek. Ebaluatzaileek informazio objektiboa ematen dute lanaren balorazio zientifikoari, idazteko moduari, zehaztasunari, originaltasunari eta interesari buruz. Era berean, bermatzen dituzte konfidentzialtasuna, lehia, inpartzialtasuna eta integritatea, interes-gatazken hedapena eta berrikuspena osatzeko epeko errespetua.

Autoreek beren erantzukizun etikoak aitortzen dituzte lanaren originaltasunari eta autoretzari dagokienez. **Artikuluetan jasotako iritziak eta egitateak egileen erantzukizun eskusiboa dira**, eta testua egungo argitaratze-arauetara egokitu beharko dute.

Plagioaren aurkako politika

Legebiltzarreko Aldizkaria – LEGAL – Revista del Parlamento Vasco aldizkariak argitaratutako lanaren errespetuarekiko eta integritatearekiko konpromisoa adierazten du. Hori dela eta, plagioa guztiz debekatuta dago, eta plagiotzat jotzen diren testuak edo iruzurrezko edukia dutenak ebaluazio-prozesutik kanpo utziko dira.

Egile-eskubideak

Aldizkari honetako artikulua guztiak [Creative Commons 4.0 Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioarteko lizentzia](#) (CC BY-NC-ND 4.0) honekin argitaratzen dira. Erabiltzaileek lizentzia honen baldintzen arabera berrerabil ditzakete edukiak.

Aurkeztutako lana argitaratzeko onartzen bada, egile gisa eta egile-eskubideen jabe gisa, baimena ematen diote **LEGAL – Eusko Legebiltzarreko Aldizkariari** lana erreproduzitu, editatu, banatu, erakutsi eta jakinarazteko, bide elektronikoz, herrialdean eta atzerrian.

Babeste-digital politika

LEGAL aldizkariak [OAI-PMH](#)ren jarraibideak betetzen ditu, artikulua guztiak hainbat direktoriotatik eta beste informazio-iturri batzuetatik eskuratu ahal izateko; eta, horrela, indexazioa ahalbidetzeko.

PKP Babesteko Sareak doako zaintza-zerbitzuak eskaintzen ditu oinarrizko irizpideak betetzen dituen edozein OJS aldizkarirentzat. Alde horretatik, eta digitalki zaintze aldera, LEGAL aldizkariako artikulua LOCKSS (Lots of Copies Keep Stuff Safe) eta CLOCKSS (Controlled Lots of Copies Keep Stuff Safe) sistemetan artxibatzen dira. Horrela, fitxategi iraunkor eta seguru bat bermatzen da.

[LOCKSS](#) kode irekiko programa bat da, Stanfordeko Unibertsitateko Liburutegiak garatua, zaintza deszentralizatua eta banatua eskaintzen duena; eta, honekin batera, etenik gabeko betiko sarbidea eta edukiaren jatorrizko bertsio autentikoaren babesa.

LOCKSS Manifestu editoriala kontsulta
daiteke: <http://legal.legebiltzarra.eus/gateway/lockss>

LEGAL aldizkariak, gainera, [CLOCKSS](#) erabiltzen du, LOCKSS sisteman oinarritua; horrek aukera ematen die liburutegiei aukeratutako web-aldizkariak gordetzeko, erregistratutako aldizkarien webguneak erregularitasunez egiaztatuz eta berriki argitaratutako edukia bilatuz eta artxibatuz. Artxibo bakoitza etengabe balidatzen da liburutegietako beste cache-memoria batzuen aurka; eta edukia usteldu edo galdu egin dela hautematen bada, beste cache- memoriak edo aldizkaria erabiltzen dira lehengoratzeko.

CLOCKSS Manifestu editoriala kontsulta daiteke:
<http://legal.legebiltzarra.eus/gateway/clockss>



EGILEENTZAKO GIDALERROAK

LEGAL urtean behingo aldizkari digital bat da, eta beste aldizkari batzuetan argitaratuko ez diren lan original eta argitaragabeak onartzen ditu. Egilearen erantzukizuna izanen da egile-eskubideen egoeraren berri ematea; eskubide horien kontra egiten duen lan bat argitaratzea egilearen edo egileen erantzukizuna izango da.

Bidalketak

Eskuizkribuak bidaltzeak esan nahi du autoreek *Jarraibide* hauek ezagutzen eta onartzen dituztela. Aldizkariaren zuzendaritzak eta Erredakzio Kontseiluak eskubidea izango dute originalak baztertzeko irizpide formalak, editorialak edo kalitatekoak direla-eta.

Eskuidatzia LEGAL aldizkariaren ebaluazio prozesuan dagoen bitartean, autoreek konpromisoa hartzen dute beste aldizkari batzuei ebaluatzeko ez aurkezteko.

Originalak bi bidetatik bidal daitezke, webaren bidez [BIDALKETAK](#) botoia erabiliz, eta/edo posta elektronikoz: legal@legebiltzarra.eus

LEGAL aldizkariak ez du tasarik kobratzen lanak bidaltzeagatik, ezta kuotarik ere bere artikuluak argitaratzeagatik.

Atal politikak

- **Azterlanak:** Atal honetan, Zuzenbide parlamentario, konstituzionala, eta oro har, Zuzenbide publikoari lotutako alderdiak jorratzen dituzten ikerketa-artikulu originalak bilduko dira, baita bizitza parlamentarioan, nola edo hala, eragina duen beste edozein gai ere. Lanak modu anonimoan ebaluatuko dituzte alorreko adituek. Gehieneko luzera: 10.500-12.000 hitz (30 orrialde gutxi gorabehera), orri-oineko oharra, erreferentziak eta eranskinak barne, halakorik badago. Atal honetako lanek laburpena, gako-hitzak eta aurkibidea behar dituzte.
- **Legeriari eta jurisprudenziari buruzko iruzkinak:** Atal honek legegintzaren zein jurisprudenziaren gaurkotasunerako leihoa izan nahi du, informazioa iritzi doktrinalarekin konbinatuz. Gehieneko luzera: 3.500-4.000 hitz (10 orrialde gutxi gorabehera), orri-oineko oharra eta bibliografia barne. Iruzkinak laburpena eta gako-hitzak erantsiko dituzte; sumarioa aukerakoa izango da.
- **Txosten juridikoak:** Ganbera legegileen txosten juridikoak jasoko dira, bai Eusko Legebiltzarrarenak bai beste biltzar batzuenak, garrantzitsuak izan direnak, behar

bezala iruzkinduak eta/edo egileak eguneratuak. Iruzkinaren gehieneko luzera: 1.800-2.000 hitz (5 orrialde gutxi gorabehera).

- **Dokumentuak:** Atal honetan berreskuratu eta zabalduko dira Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin duten adituen ekarpenak. Jatorrizko dokumentua argitaratuko da testuingurua ematen dion aurkezpenarekin batera. Aurkezpenaren gehieneko luzera: 1.200 hitz (2-3 orrialde gutxi gorabehera).
- **Atal bibliografikoa:** Legebiltzarrarekin zerikusia duten gaietan, zenbaki bakoitza argitaratu aurreko 18 hilabeteetan argitaratutako literatura garrantzitsuari buruzko aipamenak eta erreseinak sartu ahal izango dira. Gehieneko luzera: 1.800 hitz (5 orrialde gutxi gorabehera).
- **Eztabaidagaiak:** Atal hau prisma desberdinetatik azter daitezkeen gaiak lantzen dituzten lanak aurkituko dituzue, aldizkariaren intereseko gaiei buruzko eztabaida aberasten lagun dezaten.

Originalen hizkuntzak

Eskuizkribuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egongo dira. Garrantzi juridikoko beste hizkuntza batzuetan idatzitako lanak ere argitaratuko dira; zaindu behar da beti horien hizkuntza-kalitatea ezin hobea izatea, hau da, testua pertsona natibo batek idatzi edo berrikusi izan balu bezalako.

Testuaren formatua eta egitura

Originalak Word-en aurkeztuko dira, 12 tamainako Times New Roman letrarekin eta bat eta erdiko lerroartearekin. Goiko eta beheko marjinak 2,5 zm-koak izanen dira eta 3 zm-koak ezkerreko eta eskuineko marjinak. Aurkeztutako azterlanaren orrialde guztiek zenbaki bat izango dute beheko marjinaren eskuinaldean.

Eskuidatziaren gehieneko luzera, dagokion atalaren politikaren arabera izango da.

Egile-datuak

Lan originalen goiburuan ipiniko dira egilearen edo egileen izena, filiazio akademikoa edo instituzionala eta, halakorik izanez gero, ORCID identifikatzailea.

Egile-datuak, eskerrak eta lanaren finantzaketari buruzkoak, halakorik balego, beste dokumentu batean bidaliko dira, lanaren testutik bereizita.

Lanaren titulua

Izaera informatibo nabarmena izanen du eta artikulua edukia fidelki adieraziko du. Originalen tituluak gaztelaniaz eta/edo euskaraz eta ingelesera itzulita jarri behar dira. Larriz idatzita aurkeztuko dira, 14 tamainako Times New Roman letra erabilia eta zentratuta.

Laburpena eta gako-hitzak

Laburpenak gaztelaniaz eta/edo euskaraz (Laburpena) eta ingelesez (Abstract) aurkeztuko dira. Laburpen horiek 150 eta 250 hitz artekoak izango dira.

Horrez gain, testuek gako-hitzak izan behar dituzte gaztelaniaz eta/edo euskaraz (Gako-hitzak) eta ingelesez (Keywords). 5-8 hitz erabiltzea gomendatzen da. Gako-hitzak minuskulaz idatzi behar dira, komaz bereizita eta amaierako puntuarekin.

Aurkibidea

Azterlanak eta Iruzkinek ataletako lanen aurretik aurkibide bat egonen da, atalak eta azpiatalak azalduko dituena. Epigrafe nagusiak zenbakituta egongo dira (zenbaki erromatarak), letra larriz idatzita (Times New Roman, 12 tamaina). Azpiatalak minuskulaz idatzita egongo dira, letra mota berarekin eta zenbakituta (zenbaki arabiarak).

Aipamenak testuan

Testuan jasotako aipamen testualak komatxo ingelesak (" ") artean idatziko dira. Bost lerroko luzera gainditzen badute, 10 letra-tamaina izanen dute, estilo normala (biribila), koska bikoitzarekin zentratuta. Oharretan, aipamen testualak komatxo ingelesak artean eta estilo normalean idatziko dira beti.

Egileak aipaturako testu baten barruan hitzez hitzezko aipamenak adierazteko erabiliko dira komatxo sinpleak ('). Egileak hitzez hitzezko aipu baten zatiren bat eman gabe uzten badu, parentesi arteko etenpuntuen bidez adieraziko da (...). Azpimarratzea eta letra beltza ez da ezein kasutan erabiliko testuaren barruan hitzak nabarmentzeko.

Oharrak

Oin-oharrak 10 tamainako Times New Roman letra-mota erabiliz idatziko dira, korrelatiboki zenbakituta zenbaki arabiarretan eta goi-indizearekin. Testu gehigarria besterik ez dute izanen eta erreferentzia bibliografikoak baldin badituzte, laburtuta egingo dira, arau hauetan adierazten den bezala, erreferentzia osoak artikulua amaieran sartuko baitira.

Aipamen bibliografikoak

Aipamen bibliografiko bakoitzak bat etorri behar du azkenean azaltzen den bibliografiako erreferentzia batekin. Autoaipamenak ezinbestekoak direnean soilik egingo dira. Havard sistema erabiliko da: (egilea, urtea: orrialdea) testuko aipamen bibliografikoetarako:

Weber (2014) edo (Weber, 2014: 170)

Bi egile dituzten dokumentuak aipatzeko, egile bakoitzaren lehen abizena jarriko da, "eta" bidez lotuta:

(Mirat eta Armendáriz, 2007)

Hiru egile edo gehiagoren lan bat aipatzen denean, aski da lehen egilearen abizena jartzea, eta, ondoren, et al.:

(Torres-Salinas et al., 2018)

Egile baten edo egile talde baten lan bat baino gehiago aipatzen badira, urte berekoak, a, b, c... erantsi behar da, urtearen ondoren:

(Rubio Llorente, 1997a)

Aipatzen den egilearen abizena testuaren barruan dagoenean, beti parentesi artean adierazi behar da aipatutako lanaren argitalpen-urtea:

Häberle-k dioenez (2001), ...

Bibliografia

Aipatutako erreferentzia guztiak lanaren amaieran jarriko dira, egileen ordena alfabetikoari jarraituz. **Testuan aipatutako erreferentziak baino ez dira agertuko, eta ezin izango da erreferentzia gehigarririk sartu.** APA (American Psychological Association) sistemari jarraituko zaio, Gizarte Zientzietan eta Zuzenbidean erabili ohi dena; hala ere, izen osoa erabili ahal izango da (eta ez inzialak soilik) ikerketaren eremuan emakume ikusgarritasuna sustatzeko eta abizenak bat datozen kasuetan egileen indexazioa errazteko.

Ondoren, hainbat adibide bildu dira, dokumentu mota erabilienean kasurako. **Formatu elektronikoko lanen kasuan, DOI (digital object identifier) izanez gero, erreferentzia bibliografikoan jaso behar da.**

1. Aldizkari zientifikoetako artikuluak

— **Paperezkoa**

Jáuregui Bereciartu, Gurutz (2011). Demokrazia eta Eskualdea. *Eleria: Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 21, 27-32.

García Mahamut, Rosario eta Rallo Lombarte, Artemi (2013). Neutralidad y pluralismo en los medios de comunicación en las campañas electorales: la reforma de la LOREG de 2011. *Revista española de derecho constitucional*, 98, 201-240. <https://www.cepc.gob.es/publicaciones/revistas/revista-espanola-de-derecho-constitucional/numero-98-mayoagosto-2013/neutralidad-y-pluralismo-en-los-medios-de-comunicacion-en-las-campanas-electorales-la-reforma-de-la-2>

— **Aldizkari elektronikoak (DOI gabe)**

Fernández, Francisco Javier (2019). Vivienda pública y posguerra en Bilbao. *Sancho el Sabio: revista de cultura e investigación vasca*, 42, 59-100.

<https://revista.sanchoelsabio.eus/index.php/revista/article/view/237>

— **Aldizkari elektronikoetako DOIdun artikulak**

Alonso de Antonio, Ángel Luis (2018). Conocimiento por los parlamentarios de las materias clasificadas en virtud de la Ley de secretos oficiales. *Foro*, 21(2), 19-44.

<https://doi.org/10.5209/FORO.64016>

2. Monografiak

— **Paperezko liburua**

Sartori, Giovanni (2008). *La democracia en treinta lecciones*. Madrid: Taurus.

— **Online liburua**

Madinabeitia Ezkurra, Alba, Larrinaga Renteria, Ane, Martínez Palacios, Jone, Amezaga Albizu, Josu, Saratxo Moro, Mikel, Odriozola Irizar, Onintza (2018). *La aportación del sistema universitario a la transformación de la sociedad vasca*. Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://addi.ehu.es/handle/10810/30919>

— **Monografia-kapitulak**

Jiménez Asensio, Rafael (2012). El gobierno del poder judicial en España y el sistema político. En Luis Aguiar de Luque (dir.), *El gobierno del poder judicial: una perspectiva comparada* (147-152 or.). Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

3. Txostenak

— Egilea erakunde bat denean

International Energy Agency (2020). *Sustainable Recovery*. Paris: IEA. <https://www.iea.org/reports/sustainable-recovery>

— Egilea norbanako bat edo gehiago direnean

Larraga Rodríguez de Vera, Vicente (coord.) (2019). *2º Informe sobre la Ciencia y la Tecnología en España*. Madrid: Fundación Alternativas. <https://fundacionalternativas.org/wp-content/uploads/2022/07/6eba9537f524945b2e89a1aa1dd28983.pdf>

4. Ponentziak edo komunikazioak kongresuetan

Martínez Elipe, León (1984). Tipología de los regímenes políticos y del derecho parlamentario. En *I Jornadas de Derecho parlamentario (Madrid, 21-23 de marzo de 1984)* (145-170 or.). Madrid: Congreso de los Diputados.

5. Tesiak

— Argitaratuak

Morales Sequera, Susana (2016). *La descentralización de la educación universitaria en España: efectos sobre la convergencia regional desde la perspectiva del gasto público* [Doktorego-tesia]. Universidad Autónoma de Madrid. <https://repositorio.uam.es/handle/10486/6106>

— Argitaragabeak

Valle Escolano, Raquel (2019). *La implantación de la transparencia en los municipios españoles* [Argitaragabeko doktorego-tesia]. Universidad Complutense de Madrid. <https://hdl.handle.net/20.500.14352/10953>

6. Egunkarietako berriak eta artikulak

— Egiledunak

Bassets, Marc (25-6-2015). El Tribunal Supremo respalda la reforma sanitaria de Obama. *El País*. <http://internacional.elpais.com/>

— Egilerik gabeak

ELNren su-etena Konlonbiako bozetarako. (2022-3-5). *Berria*. <https://www.berria.eus>

7. Blogak

Duran Arranz, Marta (16-10-2019). El fenómeno millennial. CCCBLab. *Investigación e innovación en cultura* [Bloga]. Hemendik eskuratua <http://lab.cccb.org/es/el-fenomeno-millennial>

PRIBATUTASUN-DEKLARAZIOA

Aldizkari honi emandako datu pertsonalak aldizkariak berak adierazitako helburuetarako baino ez dira erabiliko, eta ez dira eskuragarri egongo beste ezein helburutarako edo beste inorentzat. Aldizkariak herritarrei bermatzen die isilpean tratatzen dituela datu pertsonalak, modu zilegi, garden eta leialean. Nolanahi ere, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa beteko da.

Datuen babesari buruzko eskubideak erabili ahal izango dira (datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta aurka egiteko eskubidea) helbide elektronikoko honetara idatzita: datuenbabesa@legebiltzarra.eus